

Zillo bat ere badut  
etxe saietsean,  
aspalditxo egiña  
uda etortzean.

Kezkarik asko dizkit  
onetxek uxatzen,  
aldi euritsutan  
nitunak sarri len.

Goiraiño zanpaturik  
belar aski artzen dit,  
ta ezin obekigo  
bagillez datorkit.

Ebaki ta ekarri,  
ez dut lanik asko;  
oraingoz ez naiz beintzat  
len aiña eioko.

Nere auzoan batzuk  
badira oindio  
olako ez dutenak  
etxean ario.

Ola dabiltz on zer dan  
ez dakitelako,  
baserrian nasaitu  
lanari lotzeko.

## EZLA R I O N A

*Ongi datozkigu txakurrak etxe biran, naiz azke naiz ate ondoan kateatua. Guk bi ditugu, bata «bizkor», polizi txakurra; ta bestea, «Txiki», igaz eresia, arratoi ta saguentzat etsai ernea. Leen bazituen beste griña txar batzuk ere, gaur guztiz exita dauzkanak. Ona nola.*

**Doiñu:** «Txakur txiki gorri bat...».

Nere andreak ona, ona du eskua,  
orrez gain baita guztiz duzu asmotsua;  
okerra nun antxe du bertatik eskua,  
ta gaixo zegona ark dizu sendatua.

Txakur txiki bat aurten genduan ekarri,  
arratoi-saguentzat zala-ta ongarri;  
baiña oilloak ere zitun iguingarri,  
ta txarto zerabilzkin begitan azarri (1).

Nolatan utz-aziko joera gaizkia?  
Tamalgarri zitzaigun aitzurraz iltzia.  
Ezin asmatuz hear zuen osakia,  
andreak laster zion ar-azo onbidia.

Txakurra sartu zidan otzare aundian,  
bertatik asia zan txilio bizian;  
oillo zar gero jar zion saietsian,  
elkar onez artuko zutenen ustian.

Baiña, ez, etzan giro! Nolako burruka!  
Jone-k oindio kanpoz darabil bultzaka  
barrukoak ondoxe astin-azi naika,  
eder ha litzakion barneko matraka.

Or duk or, txakur gaizto! Jarki zak oraintxe!  
Ez al duk bear bada giro onik ortxe?  
Len itukan aurrean oillo, txita ta aate,  
ase adi or autzak betekatu arte!

Gure txakur txikiak azken-epai uste du.  
Zer, zer izan duk ori! Nola aiz xuritu?  
Norekin duk mokaka egin ain kementsu?  
Zer egin leiza ortan? Irabazi, galdu?

---

(1) Ausart.

Ez, ez dizu geiago oillorik uxatzen,  
lastertxu ikasi du aiskide izaten;  
ez dizkigu geroztik oilloak kiñutzen,  
eta are gutxiago atzetik ekiten.

## IGELAK

*Etxe azpian, berrogei metrora bezela, aintziñako osin bat dago gurean, nere aitonak saskiak ontzeko bear zituen gaztain adaskak beratzen eduki oi zituna. Aspaldi ez zu ezagut gurean egiñiko zararik, baiña ortxe dago osiña apakiñez ta zugaitz txikiz egaletatik josita. Igelak ere, illunabar batzuetan batez ere, sekulako iskanbilla sortu oi digute.*

Doiñu: 8-7

Geron esparru azpian  
osin txikia dago,  
ertzez ertz neurtu ezker  
beetik da zabalago.

Euria jaustean beti  
kantuz dituzu igelak,  
azke dituzte ta nasai  
eztarriko ugelak.

Illargiak argitzean  
badute arramantza,  
ura goitik gaiñera  
eroria ba litza.

Igel osin barrukoak,  
ene igeltxo bizkorrak,  
bota, bota atertu gabe  
garraxi biozkorrak.